

Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orria

Hizkuntzei buruzko ikuspegi berria
Europa 2020 Estrategiarako

**Hizkuntza Aniztasunerako
Europako Sarearen
proposamena Europako
hizkuntzak aniztasunaren
parte gisa sustatzeko**

Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orria

Hizkuntzei buruzko ikuspegi berria Europa 2020

Estrategiarako

Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orriaren helburua honako hau da: Europar Batasunak hizkuntza-aniztasunarekin hartutako konpromisoa berrestea, eta Europan hitz egiten diren hizkuntzak (nazioarteko, Estatuko edo eskualdeko hizkuntzak, eremu urrikoak, desagertzeko mehatxuarekin daudenak edo immigrazioaren ondoriozkoak) babesa eta sustapena behar duten balio komuntzat hartzen direla ziurtatzea.

Ibilbide Orria Europar Batasuneko egungo testuinguruan txertatuta dago, eta Europar Batasunak ekonomia sendo bat eta kualifikazio handiko laneko indar bat finkatzeko beharra ezarri du lehentasun politiko gisa. Ongi planifikatutako ekimenak eta politikak behar dira hizkuntzak sendotzeko eta ekonomia oparoen sorkuntzari, gizarte-kohesioari eta Europarako jomuga komun baten lorpenari lotzeko.

Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orriak lau lan-ildo nagusi ditu. Lan-ildo horiek aplikatzen badira, Europar Batasunak hizkuntza-aniztasunaren inguruan agertu izan duen diskurtso positiboa neurri zehatz eta nabarietan gauzatuko dela ziurtatuko dute.

Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orria

Etorkizun-ikuspegia

Zergatik bultzatu behar da Europako hizkuntza-aniztasuna?

1. Europar Batasunak eleaniztasunaren inguruko politika inklusibo bat gara dezan eta Europan hitz egiten diren hizkuntza guztiek dagokien tokia har dezaten.

Zer egin beharko lukete Europar Batasunak/erakundeek?

- ▶ Europako hizkuntzak eta haien berezko balioa babestu eta ikusarazi, ahalik eta aintzatespenik handienaren bidez.
- ▶ Ziurtatu Europako hizkuntza guztiek EBko programa, proiektu eta ekimenetan parte hartzeko aukera izan dezaketela.

2. Hizkuntzek gizarte-kohesiorako, garapen pertsonal eta ekonomikorako eta lanbide-mugikortasunerako oinarritzko funtzio bat bete dezaten.

Zer egin beharko lukete Europar Batasunak/erakundeek?

- ▶ Hizkuntza guztiak EBk tokiko, eskualdeko, Estatuko eta nazioarteko ekonomiei lotutako hazkundearen, lehiakortasunaren eta enplegu-sorkuntzaren inguruan garatutako estrategian txertatu.
- ▶ Hizkuntzak mugikortasun mota desberdinetarako sustatu: nazioarteko mugikortasunerako (kasu horretan, komunikazio-hizkuntzek eta transnazionalak funtsezko zeregina bete dezakete), eta eskualdeko edo mugaz gaindiko mugikortasunerako (kasu horretan, eskualdeko eta eremu urriko hizkuntzek balio erantsi handia ekar dezakete).
- ▶ Eremu sozioekonomikoan eta sektore pribatuan (kontsumoaren eremuan, bereziki), eskualdeko eta eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatu.

3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) hizkuntzak ikasteko eta hizkuntza horiek guztiak sustatzeko eta guztiei bizia emateko erabil daitezten.

Zer egin beharko lukete Europar Batasunak/erakundeek?

- ▶ Hizkuntza-komunitate guztiek (hiztunen kopurua edozein izanik ere) IKTei lotutako Europako ekimenen garapenean parte hartzen dutela ziurtatu.
- ▶ Teknologia berriak eta haien indar handia aprobetxatu Europako herritarrei zerbitzu eleanitzen aukera zabala eskaintzeko, esaterako kulturen arteko bitartekotzan edo, oro har, zerbitzu publikoetan.

4. Eskualdeko hizkuntzak, eremu urrikoak edo desagertzeko arriskuan daudenak babes daitezten, Europako hizkuntzarik ahulenak baitira.

Zer egin beharko lukete Europar Batasunak/erakundeek?

- ▶ Estatu kideak eskualdeko hizkuntzei, eremu urrikoei edo desagertzeko arriskuan daudenei legezko aitorpena ematera animatu baita hizkuntza horien erabilera babestu eta sustatzera ere.
- ▶ Europako eskualdeko hizkuntzak, eremu urrikoak eta desagertzeko arriskuan daudenak ikusarazteko, horiekiko sentsibilizazioa sustatzeko eta babesteko neurriak hartu, eta kontinenteko hazkunde- eta oparotasun-ikuspegi berrian txertatu.
- ▶ Europako Kontseiluarekin lankidetzan estuan lan egin (Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren eragina lantzeko), eta sustatu EBko estatu kide guztiek Gutuna sinatzen eta berresten dutela, bakoitzaren jurisdikzioan xedatutakoaren arabera.
- ▶ Hizkuntza-eskubideak Oinarrizko Eskubideen Europako Gutunean txertatzeko aukera bultzatu.
- ▶ Europako erakundeen, estatu kideen eta eskualdeen artean lankidetzan bultzatu maila desberdinetan, eskualdeko hizkuntzak, hizkuntza gutxituak eta eremu urrikoak sustatzeko egon daitezkeen hesiak ezabatzeko, arlo publikoan nahiz pribatuan.
- ▶ Eremu urriko eta desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen gaineko ikerketa linguistiko eta soziolinguistikoa sustatu.

1. Ibilbide Orriaren hasiera


3. Ibilbide Orriaren lehen idazkuntza

2. Europako Parlamentuaren Ebazpena

Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orria

Prozesua eta emaitzak

Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orriak 7 fase ditu:



1. Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orriaren hasiera (2013)

Ibilbide Orria lantzeko prozesua Irlandak Bruselan duen Enbaxadako ekitaldi batean hasi zen, 2013ko apirilean. Ekitaldi horretan, Europako hizkuntza askoren egoera aztertu zen. Ekitaldi horren ondoren, hizkuntzek (eta, nagusiki, eskualdeko hizkuntzek, eremu urrikoek edo desagertzeko mehatxupean daudenek) gaur egun dituzten erronka nagusiak azpimarratu zituen txosten bat egin zen. Txostena Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen (NPLD, ingelesezko siglen arabera) Batzar Orokorrean aurkeztu zen 2013ko ekainean.

2. Europako Parlamentuak desagertzeko mehatxupean dauden Europako hizkuntzen eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunaren inguruan emandako Ebazpena (2013ko iraila)

Europako Parlamentuan “desagertzeko arriskuan dauden Europako hizkuntzei eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari” buruz aurkeztutako mozioa egin zuen taldearekin hitz egiteko aldi bat hasi zen. Hasierako mozioa Europako Parlamentuaren ebazpen bihurtu zen 2013ko irailaren 11n, eta botoen % 92ko babesla lortu zuen (Europako Parlamentuak ordura arte hizkuntza-aniztasunari emandako babesik handiena izan zen). Ibilbide Orri hau ebazpen horren gomendioetan oinarrituta dago.

3. Ibilbide Orriaren zirriborroa (2013ko maiatza-2014ko urria)

Europako Parlamentuaren mozioaren ondoren, desagertzeko mehatxupean dauden Europako hizkuntzei buruzko hainbat eztabaida egin ziren. Geroago, Parlamentuaren ebazpena onartu ondoren, Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orriaren zirriborroa egin zen. Dokumentu hori

NPLDak aztertu zuen gero. 2014ko urrira arte, Ibilbide Orriak bildu behar zituen elementuak landu zituen NPLDak, eta 2015eko otsailean, kanpoko kontsultaren fasean sartu zen Ibilbide Orria

4. Kontsultatzeko aldia (2015eko otsaila-maiatza)

Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orria atera ondoren, edukiari eta gomendioei buruz kontsultatzeko aldi bat zabaldu zen. Eztabaida horien ondoren, Hizkuntza Aniztasunari buruzko Gailur bat egingo da. Bertan, eremu publiko zein pribatuko eta hirugarren sektoreko eztabaidetan parte hartu duten eragile nagusiak eta zenbait erakunde (hala nola Europar Batasuna edo Europako Kontseilua) Ibilbide Orria inplementatzeko moduari buruzko eztabaida ireki batera gonbidatuko dira.

5. Ibilbide Orria ateratzea (2015eko urria)

Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orria Bruselan 2015eko urrian egingo den goi-mailako konferentzia batean aterako da. Bertan, Europako hizkuntza-aniztasunaren alde lan egiten duten erakunde nagusiek, Europako Parlamentuak, Kontseiluak, Batzordeak eta Europako beste erakunde batzuek (hala nola Eskualdeen Batzordeak edo Europako Kontseiluak) hartuko dute parte, eta beren ikuspegia azalduko dute.

6. Ibilbide Orriaren inplementazioa (2016 -2019)

Kontsultatzeko aldian, inplementazio-programa bat eta egutegi espezifikoa adostuko dira. Arloko eragile nagusiei eta erakundeei deialdia egingo zaie beren ekarpenak egin ditzaten.

7. Berrikuspena (2018-2019)

Inplementazio-planean, prozesua berrikusteko mekanismo bat dago. Lehen berrikuspen osoa 2018/19an egingo da, 2020-2027 aldirako Europako finantzaketaren programazio berria argitaratu aurretik.

Hizkuntzak: Europako aniztasunaren parte

Sarrera

“Aniztasunean elkartuta” goiburua 2000. urtean garatu zuen Europar Batasunak. Horren bidez, Europako proiektuan elkarrekin lan egiteko helburua adierazi nahi izan zen, era horretan bakearen eta oparotasunaren bitartez Europan batasuna lortzeko eta, aldi berean, bertako kultura, tradizio eta hizkuntzen aberastasuna ezagutu eta sustatzeko.

Gaur egun, ordea, aurrean dugun errealitateak erronka larriak dakartza Europar Batasunarentzat. Europako erakundeen eta herritarren arteko distantzia gero eta handiagoa da. Europaren egungo testuingurua kontuan hartuta, hizkuntza-aniztasuna balio erantsizat hartu behar da. Ekonomia sendo bat sustatzea eta enplegu-maila handia ziurtatzea funtsezko elementuak dira eztabaida horretan. Nolanahi ere, gizarte egonkorrago, seguruago eta oparago bat sortu nahi badugu, ezin ditugu ahaztu beste elementu batzuk.

Europar Batasunak hizkuntza asko eta asko ditu bere lurraldean (lurraldeko hizkuntza propioak zein immigrazioak hainbat mendetan ekarritako hizkuntzak). Hizkuntza-aniztasuna da kontinentea hobekien definitzen duena eta, aldi berean, Europaren kultura-identitatea sendotzen eta hobekien adierazten duena

‘Hizkuntzak ez dira komunikazio-tresna soilak, pertsonen balio, asmo eta itxaropenen gordetegiak ere badira.’

Etorkizun-ikuspegia

Europako Hizkuntza Aniztasunerako Ibilbide Orri honen helburua Europar Batasunak hizkuntza-aniztasunaren sustapenean izan beharko lukeen konpromisoa berrestea eta hizkuntzak ondasun komuntzat hartzea da. Gure hizkuntzak ekonomia oparo bati, gizarte kohesionatu bati eta helburu komun bati lotuta egotea nahi badugu, Europako hizkuntza-aniztasuna sendotzeko landutako hizkuntza-politikak beharko dira.

1. Hizkuntzen lege-estatusa

- 1.1 Hizkuntza-komunitate baten bizitasun-maila hertsiki lotuta dago eskualdeko, Estatuko eta nazioarteko agintarien aldetik lortutako aintzatespen-mailarekin. Hizkuntzak zenbat eta lege-babes eta estatus

Zer egin beharko lukete Europar Batasunak/erakundeek?

- ▶ **Europako hizkuntzei babes eta laguntza eskaini eta horiek ikusarazi, kontinentearen berezko balio baitira, eta ahalik eta aintzatespenik handiena eman.**
- ▶ **Eleaniztasunaren inguruko ikuspegi ekitatibo bat hartu, Europako hizkuntza guztiek EBko programa, proiektu eta ekimen guztietan parte hartuko dutela ziurtatzeko.**

sozial handiagoa izan, orduan eta aukera gehiago izango ditu eguneroko bizitzan erabiltzen den hizkuntza bat izateko. Ereku urriko hizkuntza bat eta ereku zabaleko hizkuntza bat dauden lekuetan, ereku urriko hizkuntza erabiltzen dutenek pentsa dezakete ereku zabaleko hizkuntza aukera sozialak, aukera ekonomikoak eta aurrerapen-aukerak ematen dituen hizkuntza dela, eta eskualdeko hizkuntza, ereku urrikoa edo desagertzeko arriskuan dagoena, berriz, ereku pribatuan baino erabili behar ez den hizkuntza dela. Ereku urriko hizkuntza bati nolabaiteko lege-aintzatespena ematea funtsezkoa izan daiteke pertzepzio hori alderantzikatze eta hitzunen autoestimua eta konfiantza propioa handiagotzen laguntzeko.

- 1.2 Egia da hizkuntza baten estatusaren inguruko erantzukizuna eskualde edo estatuetako agintarien esku dagoela nagusiki, baina nazioarteko erakundeek (hala nola Europar Batasunak) eleaniztasunaren ikuspegi ekitatibo bat bultzatu beharko lukete. Ikuspegi horri jarraiki, hizkuntza guztiak Europako herri guztien gizarte-kohesiorako, hazkunderako eta oparotasunerako tresnatzat hartuko lirateke. Beraz, Europako hizkuntza-aniztasuna bermatzeak Europar Batasuneko erakunde guztien helburu komuna izan behar du maila guztietan. Europako Parlamentuak eta Europako Batzordeak, Europako herritarren interesak ordezkatzeko dituzten erakunde nagusiak diren heinean, nabarmentasun eta balio handiagoa eman beharko liekete Europako hizkuntza guztiei eta, bereziki, hizkuntzarik ahulenei.
- 1.3. Horretarako, desiragarria litzateke Estatu kideren bateko lurraldearen zati batean ofizialtasun-estatusa duten hizkuntzek Europar Batasuneko hizkuntza ofizial gisa aintzatesteko aukera ahal den heinean bultzatzea, betiere hizkuntzek hori behar badute.
- 1.4. Europako erakundeek hizkuntza-politika komun proaktiboagoa garatu beharko lukete. Politika horrek, gainera, Europar Batasunean, estatu kideetan eta eskualdeetan hizkuntza-aniztasuna sustatzeko zeregina izan beharko luke oinarri. Helburua eleaniztasun jasangarria lortzea izango litzateke. Eleaniztasun horretan, eskualdeko eta eremu urriko hizkuntzen suspertzea eta normalizazioa eta hizkuntzen arteko bizikidetzaren egoki baten garapena baita eskualdeko hizkuntzak edo hizkuntza gutxituak ikasteko edo irakasteko hesi guztiak ezabatzea ere hartuko lirateke kontuan.

‘Herritar eleaniztunak hobeto trebatuta daude eleaniztasunak eskaintzen dien aukera pertsonalak eta hezkuntzaren, lanbidearen eta ekonomiaren arlokoak baliatzeko.’

2. Hizkuntza-gaitasunak, ekonomiaren, hezkuntzaren eta kulturaren aurrerapen-eragile

- 2.1 EBren helburua herritar guztiak ama-hizkuntzaz gain atzerriko bi hizkuntza hitz egingo duten, edota, Estatuko hizkuntzak eta eremu urrikoak dituzten Europar Batasuneko lurralde batzuetan, bi lehen hizkuntza hitz egingo duten Europa bat eraikitzea da. Testuinguru horretan, eskualde batzuek plan estrategikoak garatu dituzte jakintza-eremu guztietan hizkuntza-gaitasunak sustatzeko eta horietan trebatzeko. Gaur egungo egoera ekonomikoan, lan-indar eleaniztuna eta kulturantzituna funtsezkotzat hartzen da hazkunde ekonomikoa lortzeko, enplegua sortzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Horren aurrean, gero eta garrantzitsuagoa da hizkuntza-gaitasunak eskuratzea.

Zer egin beharko lukete Europar Batasunak/erakundeek?

- ▶ Hizkuntza guztiak tokiko, eskualdeko, Estatuko eta nazioarteko ekonomiei lotutako hazkundearen, lehiakortasunaren eta enplegu-sorkuntzaren inguruan garatutako Europako estrategian txertatu.
- ▶ Hizkuntzak mugikortasun mota desberdinetarako sustatu: nazioarteko mugikortasunerako (kasu horretan, komunikazio-hizkuntzek eta transnazionalak funtsezko zeregina bete dezakete), eta eskualdeko edo mugaz gaindiko mugikortasunerako (kasu horretan, eskualdeko eta eremu urriko hizkuntzek balio erantsi handia ekar dezakete).
- ▶ Jarduera sozioekonomikoetan (kontsumoaren eremua barnean hartuta) eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatu.

- 2.2 Gaur egun, paradoxa handia dago Europar Batasunean: oraindik ere langile kualifikatuen gabezia dago langabezia-maila handiko eremu jakin batzuetan. Hazkunde ekonomikoan eta enpleguan dauden maila desberdinek laneskueskasia eta gehiegizko laneskua sortzen dute Europako eremu jakin batzuetan, lan-mugikortasun txikiaren ondorioz, neurri batean. Europako Kontseiluak mugikortasuna handiagotzeko gaitasunei buruz egindako txostenak zioenez, “lanbide-mugikortasunak larriki oztopatuta jarraitzen du hizkuntza ezagutza txikiaren ondorioz”.
- 2.3 Egia da eremu globaleko hizkuntzek (hala nola ingelesak, gaztelaniak,

frantsesak edo txinerak) funtsezko zeregina betetzen dutela nazioarteko harremanetan, merkataritzan eta negozioetan, baina ezin dugu ahaztu Europako jarduera ekonomikoaren zati handi bat eskualde mugakideetan egiten dela. Jarduera horrek eremuko garapen ekonomiko eta soziala sustatzen du. Izan ere, lankidetzaz zuzenagoa ezartzen du lurraldeko pertsonen artean, eta eskualdea askoz dinamikoagoa da horren ondorioz. Testuinguru horretan, eskualdeko hizkuntzak ikasteak eta sustatzeak onura handiak dakartza garapen ekonomikoari dagokionez; halaber, lurraldearen gizarte-kohesioa ahalbidetzen du.

- 2.4 Europar Batasunak funtsezko hainbat ekimen identifikatu ditu pertsonen egungo eta etorkizuneko lan-merkatuak gaitasun egokiak emango dizkien hazkunde iraunkor eta adimentsu bat sustatzeko. Hizkuntza guztiak (komunikazio-hizkuntzak, nazionalak, eskualdekoak edo immigraziokoak) estrategia horretan txertatu behar dira; era horretan, lehiakortasunaren oinarria ez da izango kostu txikitzearen oinarritutako ekonomia bat, jakintza baizik. Hizkuntzak hazkunderako eta oparotasunerako aukera-iturritzat hartu behar dira.
- 2.5 Kalitateko enplegua sortzeko faktore garrantzitsu bat Europako pertsonen mugikortasuna da, gero eta aldakorragoa den mugikortasuna, alegia: alde batetik, distantzia luzeagoko mugikortasun iraunkorragoa aipatu behar da, eta, bestetik, Estatuko hizkuntzaz gain hizkuntza propio bat erabiltzen den eskualdeen arteko distantzia laburreko mugaz gaindiko mugikortasuna. Ingelesa atzerriko lehen hizkuntza (eta, zenbaitetan, bigarren hizkuntza) bihurtzen ari bada ere, hizkuntza bat baino gehiago jakitea izango da elementu bereizgarria etorkizunean.
- 2.6 Kontzientziario handiagoa dago eremu mugakideetan ere komunikaziorako erabiltzen diren eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzen ahalmen ekonomiko eta sozialaren inguruan. Agintari publikoek (hala nola toki-erakundeek edo udalek eta enpresa txiki eta ertainek) gero eta argiago ikusten dute mugaz gaindiko lan-mugikortasunak duen garrantzia, baita mugaz gaindiko lankidetzaz era eraginkorrean sustatzeko lurraldeko hizkuntzan hitz egiten duten tokiko agenteengana jotzeko beharra ere.
- 2.7 Mugikortasuna hertsiki lotuta dago enplegarritasun-maila handiagorekin (mundu akademikoan, Europan langileak hautatzean edota zerbitzu-

batzordeen bitartez). Gero eta azterlan gehiagok erakusten dute nazioarteko, Estatuko zein eskualdeko hizkuntzei lotutako gaitasunak dituzten pertsonak kontratatzeak ondorio positiboa duela negozio-salmenten igoeran. Izan ere, bezeroekin harreman pertsonalagoa sortzeaz gain, merkatuarekiko konpromisoa geratzen da agerian, ikuspuntu ekonomikotik zein sortzen diren gizarte-loturei esker.

3. IKTak hizkuntzen ikaskuntzaren zerbitzura

- 3.1 Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza ziurtatzeko mekanismo eraginkorrak dira. Teknologia berriek aldaketa handia eragin dute komunikatzeko dugun moduan. Ildo horretan, oztopoak apurtu dituzte, eta jakintza eta komunikazio dibertsifikatua ia berehala lortzeko aukera eskaintzen dute. Inoiz ez da hain erraza izan edukiak hainbat hizkuntzatan lortzea. Hizkuntza askotan daude hizkuntza-baliabide handiak eta edukiak. Beraz, zalantzarik gabe, IKTek ahalmen handia dute hizkuntza-arloan.

Zer egin beharko lukete Europar Batasunak/erakundeek?

- ▶ **Europako hizkuntza-komunitate guztiek (hiztunen kopurua edozein izanik ere) IKTei lotutako Europako ekimenen garapenean parte har dezaketela ziurtatu.**
- ▶ **Teknologia berriak eta haien indar handia aprobetxatu Europako herritarrei zerbitzu eleanitzen aukera zabala eskaintzeko, esaterako kulturen arteko bitartekotzan edo, oro har, zerbitzu publikoetan.**

- 3.2 Komunikabide berriek hainbat aukera eskaintzen dute hizkuntza guztietan, parte-hartze irekiarekin hasi eta erabiltzaile eta hiztunek sareak sortzeko aukerarekin amaitzeraino. Funtsean, hizkuntza-komunitate guztiek balia dezakete sarbide irekia edukiak sortzeko eta beren hizkuntzetan komunikatzeko, hiztunen kopurua edozein izanik ere. Lehen gune nagusiki anglofonotzat hartzen zena hizkuntza guztiek parte har dezaketen gune bat da orain. Gainera, teknologiei esker, hiztunen kopuruak gora egin dezake.
- 3.3 Europar Batasunak lehentasuna eman dio teknologiari bere 2020 estrategian, elementu eraginkortzat hartzen baitu European lehiakortasuna areagotzeko. EBK, teknologia berriak aplikatzearen bidez, berrikuntza bultzatu nahi du sektore pribatuan zein publikoan. Adibide gisa, zerbitzu modernoetarako

sarbidea (hala nola gobernu elektronikora) edo linean kudeatutako osasungintza aipa daitezke. Helburu hori lortzeko, egitura-funtsen erabilera bultzatu du.

- 3.4 Dena dela, adierazi beharra dago Europako hizkuntza guztiak ez dutela onura berdina lortzen teknologiek. Eskualdeko hizkuntzak, eremu urrikoak edo desagertzeko arriskuan daudenak, hizkuntza nazional asko bezalaxe, nazioarteko hizkuntzen oso atzetik daude, eta distantzia gero eta luzeagoa da. Adostasun handia dago Interneten eta komunikabide sozial berrietan agertzea hizkuntza baten etorkizunerako funtsezkoa dela eta aurrerabideari, parte-hartzeari eta erabilgarritasunari lotuta dagoela adieraztean, gazteenen belaunaldien kasuan batez ere. Aditu askok iragarri dutenez, hizkuntzek aurrera egiteko beharrezkoa da hiztunek teknologia erabiltzeko aukera izatea.
- 3.5 Europako hizkuntza guztiak baldintza berdinetan parte hartu behar dute teknologia berrien garapenean. Izan ere, sinergiak eta elementu komunak sor daitezke eremu publiko zein pribatuko alderdi guztien artean.

4. Europako hizkuntzarik ahulenak babestea

- 4.1 EBko 24 hizkuntza ofizialez gain, eskualdeko, eremu urriko edo desagertzeko arriskuan dauden 80-90 hizkuntza inguru daude Europan, lege-aintzatespen handiagoarekin edo txikiagoarekin. Hizkuntza-komunitate horien artean, batzuek erabateko koofizialtasuna dute beren erkidegoetan (hala nola katalanak, galegoak, galesak edo euskarak), eta beste batzuek, berriz, ez dute lege-aintzatespen eta aintzatespen ofizialik (edo oso txikia dute), hizkuntza bizirik iraunarazteko borondate irmoa izanik ere.
- 4.2 Azken hamarkadetan, Europako eskualdeko hizkuntzak, eremu urrikoak edo desagertzeko arriskuan daudenak babestu dituzte Europako erakundeek. Europako hizkuntza-ondarea hobekien landu duen ituna Lisboako Ituna da. Testu horretan adierazten denez, Europar Batasunak “bertako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuko du, eta Europako kultura-ondarearen babesa eta garapena zainduko du.
- 4.3 **EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunak** EBk babestutako funtsezko eskubideak jasotzen ditu dokumentu bakar batean. Gutunaren 22. artikulua dioenez, “Batasunak kultura-, erlijio- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen du”. Gutuna 2000. urtean aldarrikatu zen, eta Lisboako Ituna indarrean jarri zenean bihurtu zen lotesle Europar Batasunean.

Zer egin beharko lukete Europar Batasunak/erakundeek?

- ▶ Estatu kideak Europako hizkuntza konstituzionalei, eskualdeko hizkuntzei edo eremu urrikoei ofizialtasun-estatusa ematera eta hizkuntza horien erabilera babestu eta sustatzera animatu.
- ▶ Gutxien zabaldua dauden Europako hizkuntzak ikusarazteko, babesteko eta horiekiko sentsibilizazioa sustatzeko neurriak hartu, eta Europako hazkunde- eta oparotasun-ikuspegi berria txertatu.
- ▶ Europako Kontseiluarekin lankidetzan estuan lan egin Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren eragina lantzeko, eta EBko estatu kide guztiak Gutuna sinatzera eta berrestera animatzeko, bakoitzaren jurisdikzioetan xedatutakoaren arabera.
- ▶ Hizkuntza-eskubideak EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunean txertatzeko aukera bultzatzea.
- ▶ Europako erakundeen, estatu kideen eta eskualdeen artean lankidetzan bultzatu maila desberdinetan, eskualdeko hizkuntzak, hizkuntza gutxituak eta eremu urrikoak sustatzeko egon daitezkeen hesiak ezabatzeke, arlo publikoan nahiz pribatuan.
- ▶ Eremu urriko eta desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen gaineko ikerketa linguistiko eta soziolinguistikoa sustatu.

4.4 2008ko azaroan, Europako eleaniztasunerako estrategia bati buruzko ebazpen bat onartu zuen **Europar Batasuneko Kontseiluak**. Ebazpen horretan adierazten zenez, kultura- eta hizkuntza-aniztasunak Europako identitatearen parte izan behar zuen eta Europaren balioztat hartu behar zen. Kontseiluak hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko ahalegin handiagoak egitearren, hizkuntza-aniztasunaren kultura-alderdiak hezkuntza- eta prestakuntza-maila guztietan balioesteko eta, aldi berean, Europako hizkuntzen barietateari eta nazioarteko zabalkundeari buruz dagoen informazioa hobetzeko eskatu zuen. 2011ko azaroan hizkuntza-gaitasunak hobetzeko eta, era horretan, mugikortasuna handiagotzeko moduari buruz landutako ondorioetan, hizkuntza gehiago (eskualdeko hizkuntzak, eremu urrikoak edo desagertzeko arriskuan daudenak barne) eskaintzeko beharra onartu zuen Kontseiluak.

4.5 Eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzek Europan leku garrantzitsuagoa izateko lan egin du beti **Europako Parlamentuak**. Lehen Arfé ebazpenaz

geroztik (1981), hizkuntza horien aldeko ekimen eta txosten ugari onartu ditu Parlamentuak. Ekimen horietako azkena desagertzeko mehatxupean dauden Europako hizkuntzei eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko 2013ko irailaren 11ko ebazpena da, eta deia egiten du Europar Batasunak premiarik handiena duten Europako hizkuntzak sustatzeko babes eta finantzaketa handiagoa eman dezan. Europako Parlamentuko ekimenek agerian utzi dute Parlamentuko agendan hizkuntza-aniztasunaren babesa eta, zehazki, eremu urriko hizkuntzak kontuan hartzeko egindako ahalegina (oro har, iraunkorra). Hortaz, arlo horren inguruko interesa gero eta handiagoa dela esan daiteke.

- 4.6 Nazioarteko beste erakunde batzuek ere babestu dute Europako hizkuntza-aniztasuna. Europako Kontseiluak eskualdeko hizkuntzen, eremu urrikoen eta desagertzeko arriskuan daudenen sustapena bultzatu du Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren eta Gutxiengo Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmenaren bitartez. Testuinguru horretan, desagertzeko arriskurik handiena duten hizkuntzak identifikatzen laguntzen da, eta, ondoren, laguntza eskaintzen da politikak lantzeko eta premiak eta zaintzeko neurri egokiak identifikatzeko prozesuan. Ildo berean, UNESCOk Hizkuntzen Bizitasunaren Indizea garatu du, eta Arriskuan dauden Hizkuntzetarako Atlasean islatuta dago.
- 4.7 Europako eskualdeko hizkuntzen, eremu urrikoen edo desagertzeko arriskuan daudenen aldeko nazioarteko ekimen ugariak gorabehera, Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzetarako Europako Gutuna baino ez da loteslea, eta hark baino ez ditu ezartzen hizkuntzak sustatu, erabili eta suspertzeko ekintza zehatzak. Gaur egun, Europako Kontseilua osatzen duten 47 estatuetatik, 25ek berretsi dute Gutuna, eta horietako 14 EBko estatu kideak dira.
- 4.8 Eleaniztasunaren ikuspegi inklusibo batek, nolana ere, tokiko, eskualdeko, Estatu eta Europako administrazioetan, hezkuntza-sistemetan eta komunikabideetan hainbat hizkuntza agertu eta erabiltzeko aukera sustatu beharko luke. Halaber, Europako erakundeen lan-hizkuntzak zehaztu beharko lituzke berriz. Nolanahi ere, ez litzateke eraginkortasun administratiboaren irizpidea erabili beharko hizkuntza-aniztasunaren sustapenaren kalterako (aniztasun horren barruan, eskualdeko hizkuntzak, eremu urrikoak edo desagertzeko arriskuan daudenak sartu behar dira).

Ondorioa

Dirudienez, Europa bateratuago eta iraunkorrago baten garapena da Europako liderrek gaur egungo impassearen aurrean bultzatu duten soluzioa. Europak hazkunde ekonomikoaren eta oparotasunaren bidera itzuli behar du. Eta hutsegite larria izango litzateke herritarrak kontuan hartuko ez balira.

Europa hartzen ari den ikuspegi berriak, egungo munduaren errealitatea aldakorra dela ez ezik, Europar Batasuna eta horren etorkizuna ekonomiara mugatzen ez dela ere kontuan hartu beharko luke. Izan ere, askoz haratago doa. Herritarren gizarte-kohesioa, proiektu komun batekoa izatearen sentimendua eta mundu globalizatu honetan balio komunak partekatzeko aukera ere kontuan hartu behar dira. Gure esku dago Europako herrietako hizkuntza guztiak kontuan hartuko dituen ikuspegi bati jarraitzea, herri horiek guztiak Europako proiektu komunekeo partaide izan daitezen.

Hizkuntza-aniztasuna: Europako baliorik onena

Europako hizkuntzen bizitasuna honako faktore hauen arabera da:

- ▶ Gure jarrera pertsonalaren, gure hizkuntzak eremu publikoan zein pribatuan erabiltzeko dugun borondatearen eta gure etorkizuneko belaunaldiari ama-hizkuntza(k) transmititzeko borondatearen arabera.
- ▶ Tokiko, Estatuko eta nazioarteko erakundeek eleaniztasuna balioesteko eta hizkuntzei dagokienez jarduteko moduen arabera.
- ▶ Toki-mailan, Estatuan edo nazioartean hizkuntza-aniztasunaren aintzatespena eta antolamendu ekitatiboa lortzea eta, era horretan, hizkuntzak komunitate eta hiztun guztien garapen ekonomiko eta sozialerako tresnatzat hartzea ahalbidetzen duten hizkuntza-arloko legeriaren, politikaren eta plangintzaren arabera.
- ▶ Azkenik, hizkuntza Europako herrien eta kulturen arteko elkarizketa-tresnatzat hartzeko asmoaren arabera.

Hizkuntza-aniztasuna, Europako ikuspegi berriaren ardatz. Zergatik da garrantzitsua?

- ▶ Europako eraikuntzan, eta egungo egoera ekonomiko eta sozialaren aurrean bereziki, herri guztiak hartu behar direlako kontuan. Gure helburu komuna lortu nahi badugu, lankidetzak, errespetuak, aintzatespenak eta elkar ulertzeak funtsezko elementu izan behar dute. 2008. urtean, hizkuntzen ugartasunak Europa sendotzeko baliagarria izan litekeela erakusten zuen txosten bat landu zuen intelektual talde batek, Amin Maalouf idazlea buru zela. Edozein motatako aniztasunak (hizkuntza-aniztasuna barne) konplexua dela onartu zuen arren, taldeak ondoziotatu zuen Europako nazio guztiak identitate-hizkuntza batean oinarrituta eraiki badira ere Europar Batasuna hizkuntza-aniztasuneari oinarrituta eraiki behar dela.
- ▶ Kontzientziario handiagoa dagoelako hizkuntza guztiak, hiztunen kopurua edo lege-estatusa edozein izanik ere, kulturen arteko elkarizketa eta kultura-aniztasuna sustatzen dutela eta, beraz, Europako garapen sozial eta ekonomikoan funtsezko zeregina betetzen dutela agerian uzten duen errealitatearen inguruan. Hizkuntzak, halaber, funtsezkoak dira kalitateko hezkuntza lortzeko, lankidetzat indartzeko, jakintzaren gizarte inklusiboak eraikitzeko, kultura-

ondarea zaintzeko eta zientziaren eta teknologiaren garapen iraunkorrean erabiltzeko. Hizkuntza guztiak Europa inklusibo baten eraikuntza ekitatiborako duten ahalmena garatzeko, ikertu egin behar da alor horretan eta beste askotan.

- ▶ Eleaniztasuna ez delako gure asmoa, errealitatea baizik. Lurralde batean hainbat hizkuntza erabiltzea Europako egungo gizartearen ezaugarri bereizgarrietako bat da. Gizarte- eta hezkuntza-arloko aldaketek eta gero eta handiagoa den giza mugikortasunak eragin handia izango dute eleaniztasunaren etorkizuneko kudeaketan. Etengabe aldatzen ari den Europako hizkuntza-egoeraren berri emango duten ikerketa-ildo berriak behar dira. Egoera horren aurrean, hizkuntza guztiak hartu behar dira kontuan, era ekitatiboan gainera.
- ▶ Europar hizkuntzetarako erabili diren finantzaketa-mekanismo nagusiak “Bizitza osorako ikaskuntza” programaren bitartez esleitu dira, eta Erasmus + izena hartu dute 2014-2020 aldirako. Programa horien finantzaketaren zati handi bat hizkuntzen ikaskuntzari lotutako ekimenetara bideratu da. Hala ere, Europar Batasuneko hizkuntza ez-ofizialak sustatzeko finantzaketak beharrezko joera kezkarria hartu du. Europako Batzordeak bere eleaniztasun-politikaren bidez lortu nahi duen helburu nagusia hizkuntzen ikaskuntza, hizkuntza-aniztasuna eta ekonomia eleanitza sustatzea da. Eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunak oso kezkatuta daude Europak hizkuntza horietarako ematen duen babesak (premierik handiena dutenak baitira) behera egiten jarraitzen duelako. Beraz, beharrezkoa izango da, arlo horretan, ikerketa soziolinguistikoari arreta berezia eskaintzea.
- ▶ Europa osoan ezagutu eta partekatu beharreko ekimenak, praktika onak eta proiektuak daudelako, hala nola AICLE metodologia (EAHII Edukiaren eta Atzerriko Hizkuntzaren Ikaskuntza Integrala). Europako hizkuntza-komunitate minoritario askok urteetan garatu izan dute AICLE metodologia oso emaitza onekin. Horiek onura izan daitezke Europako hizkuntza-komunitate guztientzat. Horretarako, sareek funtsezko zeregina betetzen dute informazioa biltzean, hizkuntza-aniztasunaren garrantziaren inguruan sentsibilizatzean, eta hizkuntzek dakartzaten abantaila pertsonal, sozial eta ekonomikoak eta hizkuntzak ikasi eta irakasteko metodologiak eta ikuspegi berriak zabaltzean.

